

ASTEIZ GEU

76 zbk. 1999ko apirila

Javier Uriondo: Kirolari musherra

ARABALDEA aldizkaria

- The Allnighters taldeari agurra
- Arabako Ikus-entzunezko Medioen Elkartea



Geu Elkartearen Haize berriak

Zazpi urte igaro dira Gasteizen euskaren normalkuntza eta gure hizkuntza kalean areagotu asmoz sortu ginenetik. Gauza ugari gertatu da 7 urteotan, lagun asko ibili da Geu-n, denetiko jendea, eta proiektu anitz aurrera ateratzen saiatu gara.

Egitasmo hauen artean, batetik, badaude bere garaian abian jarritakoak baina egun geldirik daudenak, zeinak une aproposenean berreskuratu nahi ditugun: abesbatza, mintzalaguna, Araba irratia... besteak beste. Eta, bestetik, oraindik ere martxan daudenak, hala nola, zure eskuetan duzun aldizkaria, Euskarri, Geurekin Mendira, Matrikulazio Kanpaina, Bertso Saioa...

Geu Elkartea irekia dugu. Ideiak jaso eta burutzeko, jende eta beste elkarteekiko hartu-emanetan... Nolanahi ere, gure egoitzaren urruntasunak -Apaiztegia baikaude-harreman sendoagoak oztopatu ditzake... Horregatik deitzen zaituztegu, zuen asmoak, ideiak, ekarpenak entzuteko prest gauz-kazuela jakin dezazuen.

Gauzak horrela, Geu Elkartek erronka berri bati heldu nahi dio aurten, Geure egitasmo berriak gauzatzea hain zuzen ere. Hauetatik zenbait aurten berreskuratu Geuko proiektu zaharrak ditugu, esaterako, Umeentzako jolasak Gasteizko parkeetan; eta berrien artean, Zinema kalean (udara-

ko), Web gunea ("Geu gune"), Abizenak euskal grafiaz zerbitzu iraunkorra, Gasteiz-tarrak munduan zehar hitzaldi eta erakusketen bidez, liburutegia, bideoteka... aipa daitezke.

Ikusten duzuenetz, Elkartek aurten bere indar guztiak jarriko ditu euskara kalean, ahoan eta bihotzean egon dadin.


Elkartean aldaketa txikia dagoeneko nabaritu den arren (partaideen joan-eto-riak, harremanak beste elkarte batzuekin, bazkide berriak...), aipatu ekimenak aurrera eraman ahal izateko lagun berrien eskuhartzeari ezinbestekoa deritzogu. Zeure lagun-tza, halaber. Lana dugu, eta zu, zuek, guztiok... zezoz eman dezakegu!

Gerta dakizueke euskararen aldeko ekimen edo proiektu bat gauzatu nahi izatea, eta ez jakitea nola, non, nora jo, norekin hitz egin... Hemen duzu aukera paregabea! Animatu eta hurbildu zaitez "geurengana". Lagun berriak... lagun gazteak... haize berriak... egitasmo berriak... Gasteiz euskaldunagoa, ederragoa, maitagarriagoa. Euskara maite eta gozatzen dugulako... Geu Elkarteari bai!



Edurne Rey Delgado
Geu Elkarteko zuzpertzalea

Naturaren isladak



**LORTU
GABEKO
AMETSAK**

Arabako errepideetan autoek harrapatuta hiltzen diren anfibiorik gehienak apo arruntak izaten dira.



Ivan Uriondo kirolaria musher dugu. Musher hitza ezezaguna izango da askorentzat, eta ez da harritzekoa, Araban bi musher bakarrik baititugu. Musherrak trineoz ibiltzen dira, 16 txakur edo gehiago gidatzen dituzte, eta Alaskan dute jatorria. Horrela izanda ere, gure protagonista Gasteizkoa da; orain bi urte hasi zen, eta ondo, gainera, aurten Monegroseko eta Bizkaiko txapelketak bereganatu ditu eta.



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Gasteizko Udala
Argitarapen Zerbitzua



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA




Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

AURKIBIDEA

2.orr Editoriala: "Geu Elkartearen baize berriak"

4.orr Kangeuroak, Geu Azoka...

6.orr Laburretan.



10.orr Arabako Ikus-entzunezko Medioen Elkartea



13.orr "ARABALDEA" aldizkaria



16.orr "Piti-Pata" aldizkaritxo



20.orr Kultur Ajenda

23.orr Ivan Uriondori elkarrizketa



26.orr DI-DA: Iker Gutierrez eskalaria

27.orr Komikia: Txeroki

28.orr Agur! The Alnightsers taldeari



30.orr Musika: Konpaktoak



32.orr Ipuina: "Lanean zein etxean, berdin da"

34.orr Iritzia: "Aramaioko Harana"



Geu Gasteiz, Gasteizko Euskaldunon hilabetekaria

Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a · Telefonoa eta Faxe: 945 22 21 53
Zuzendaria: Estitxu Breñas Glez. de Zarate. **Erredakzio-batzordea:** Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Karlos Fdz. de Betoño eta Estitxu Breñas. **Erredakzioa:** Leire Lopez de Aberasturi, Ismael Diaz de Mendibil, Txabi Arnal-Gil, Raul Saez de Buruaga, Itziar Uriarte.
Argazkiak: Edorta Sanz. **Maketa:** Izadi Editoriala. **Komikia:** Iñigo Sarasola.
Naturaren Isladak: Iñaki Zorrakin. **Kolaboratzaileak:** Iñigo Kastresana, Patxi X. Ruiz de Azua.
Publizitatea: Karlos Fdez. de Betoño. **Banaketa arduraduna:** Txipi Ormaetxea.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) · Ale Kopurua: 2.500 · LG: VI-582/92 · ISSN: 1133-0988 · Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu Gasteiz hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enrantzunkizunik.

PREMAZKO TELEFONOAK

S.O.S. DEIAK:

..... 945 112

UDALZAINGOA:

..... 945 092

INFORMAZIOA:

..... 945 010

SUHILZAILAK:

..... 945 16 11 11

GURUTZE GORRIA:

..... 945 22 22 22

D.Y.A.:

..... 945 28 10 20

ERIETXEETAKO URGENTZIAK:

..... 945 24 44 44

AUTOBUS GELTOKIA:

..... 945 25 84 00

RENFE:

..... 945 23 02 02

AIREPORTUA:

..... 945 16 35 91

ERREPIDEETAKO INFORMAZIOA:

..... 945 28 20 00

HIRI-BABESA:

..... 945 16 11 61

UDALETXEA:

..... 945 16 11 00

FORU ALDUNDIA:

..... 945 18 18 18



Kan Groak

Haurrak zaintzen ditugu

GOIZEZ

Nekane 945 26 91 53
Eduardo 945 14 21 99
Leire 945 27 32 81
Lorena 945 27 10 13
Ainara 945 24 04 42
Ana 945 26 65 95
Eriete 945 29 96 50
Estitxu 945 27 65 07

Idoia 945 24 47 79
Lorena 945 27 10 13
Montse 945 26 78 12
Ainara 945 23 38 28
Txaro 945 28 08 85
Maider 945 24 90 62
Arrate 945 25 64 01
Patrizia 945 13 93 37
Uxue 945 24 37 11

ARRATSALDEZ

Oihana 945 25 30 35
Aintzane 945 27 09 64
Iratxe 945 24 51 81
Ainara 945 23 38 28
Lorena 945 27 10 13
Patrizia 945 27 78 19
Leire 945 23 12 23
Maider 945 24 90 62
Estitxu 945 27 65 07

ASTEBURUAN

Olatz 945 25 61 20
Montse 945 26 78 12
Arrate 945 25 64 01
Patrizia 945 13 93 37
Leire 945 23 12 23
Jose Angel 945 27 62 14
Saida 945 26 58 05
Idoia 945 24 47 79
Maider 945 24 90 62
Belen 945 13 65 10
Monika 945 13 86 21
Itziar 945 13 86 21
M. Jesus 945 13 54 35
Estitxu 945 25 99 60

GAUEZ

Esther 945 27 84 57

Geu Gasteizek ez du sail honetan sortzen diren harremanen ardurarik hartzen

FOTONOITIZIA

Gasteizko kaleek euskarari bai esan zioten martxoaren 25eko iluntze partean, Korrika sartu eta joan zen arte. Aurtengoan ere, orain 2, 4, 6... urte gertatu bezala, Gasteiz lehendabiziko postuetan geratu da euskararekin harturiko konpromisoari dagokionez. Zorionak Korrikari, Gasteizi eta euskarari gero eta sasoi hobean iza-teagatik, eta 2001. urtera arte!

E. B.



Edorta Sanz

OLARIZU MENDI

HERRIKO TABERNA

JOSE URIBUELA KALEAN

GASTEIZKO

IRUBIDE

RAMIRO DE MAEZTU KALEAN

HERRIKO TABERNA

HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA

"SAN FRANCISCO JAVIER" KANTOIAN

TERMOMETROA

Oraingoan berri onak topatu ditugu atal honetarako, hortaz hozkailua itxi, eta etor zaitezte sutondora:

✓ Karmelitek 20 urtez itxita egon den Ramon y Cajal izeneko elizan euskarazko mezak soilik emango dituzte apiriletik aurrera.

✓ Jose Angel Cuerda Gasteizko alkateak adierazi legez, Gasteiz hiriko kale izendegia onartua dago dagoeneko. "Gasteizko Udalak Euskaltzaindiarekin sinatutako akordioari esker egin da lana, eta ez nolahi, gainera, zenbait elkarrek ere lagundu baitute horretan. Laburbilduz, kaileen euskal izenak ofizialak ditugu egun".

✓ Inauguratu eta 20 urte beranduago Mendizorroztako pilotalekuetako iragarki oro, jada, aldatu dituzte: elebidunak eta akatsik gabekoak. Bazen garaia!

 I. K.

Geu-Azoka

Agurrak, saldu edo erosi nahi duzuna... idatzi postaz: Pedro Asua, 2. 3.a faxa. 22 21 53

SALMENTAK

Antzinako txanponen bilduma saltzen dut, baita gehiago ere. Mende honetakoak eta nazio antizekoak ere badauzkat.

945 14 54 90

Lanpara bat dut salgai sarreran ipintzen den kristaltxo asko duen horietako dotore bat. Oso ona da.

945 22 73 03 Maite

Telefono mugikorra daukat salgai. Ascom Elisto (Airtel). 19.000 pta. balio du eta nik 15.000 ptan. salduko dizut.

945 22 73 03 Jabi

Pedro Sainz margolariaren oleo bat daukat salgai. Arabako Lasarte herria da. 108x87. Salneurria: 60.000.

945 22 73 03

Trono itxurako aulki handi bat daukat salgai, oso aproposa adineko jendearentzat. Erosoa.

Salneurria: 12.000.

945 22 73 03

49 c.c.ko ziklomotorea dut salgai. Salneurria: 25.000 pta.

945 14 54 90

DEIAK

Ohiko osasun sistemam asetzen ez bazaituzte, zatoz Sumendi osasunaren autogestioaren aldeko elkartera 945 22 65 03

Ez hago bakarrik!! Hator Gaytasunara. Informazioa, hitzaldiak eta eztabaidak, psikologi, sexologi eta lege aholkularitza... Bilerak asteazkenero. 945 25 77 66

Gasteizko Esperanto Elkartea. Hizkuntza txikiak maite ditugulako, esperantoz mintzatzen gara. Zapataria kalea, 29 alokatzen dut

Aktiboan dagoen harategia alokatzen da. Esparru zabala da eta ondo prestatuta dago.

945 24 08 65 Ana

BESTEAK

Bilbora edo Galdakaora egunero joaten den pertsona baten bila nabil gastuak konpartitzeko.

945 24 92 36

2. D.B.H.ko matematika eta ingelesa euskaraz ematen dituen irakaslea behar da martxotik irailera, oinarritik hasteko. Maribel, 945 172850.

Uda honetarako
begi itzalik ederrena
aurkezten dizugu

Eguzki **Betaurreko**
Graduatuak Mendia Optikan



<http://www.multiopticas.es>

ZERBITZU
OPTIKOETAN
1a

MENDIA OPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Larunbat arratsalde zabalik: 5.00 - 8.30

Hautes-zerrendak prest

Alderdiak hasi dira ekaineko hauteskundeei begira lanean eta lehenengo lana hautes-zerrendak prestatzea izan da. Martxoan barrena alderdi gehienek egin dute beren zerrenda-buru eta programen aurkezpena. Ale hau ixtarakoan IU-Ezker Batua alderdiko zerrenda finkatzeke zegoen.

EAJ-PNV eta EAK zerrenda bateratua prestatu dute azkenean bai Gasteizko alkatetzarako baita Arabako Diputaziorako, Hegoaldeko beste hiru hiriburu, Bizkaia eta Gipuzkoako diputazioetan eta Nafarroako Gobernuan bezalaxe. Alderdietako afiliatuak baiezkota eman behar badute ere, M^a Jesús Aguirre izango da alkategaia eta Felix Ormazabal berriro ere ahal-dun nagusigaia

Zerrenda abertzaleekin jarraituz, Iñaki Ruiz de Pinedo eta Iñaki Usategi izango dira HBren zerrenda-buruak. Hasiera batean Antton Morcillo, mahaikide gartzelera-tua, alkatetzarako zerrendako lehen postuan joango zela zabaldu bazen ere, geroago ezinezkoa dela argitu zen epaia emanda izatean legeak galarazten duelako. Ruiz de Pinedok Morcillo gogoratu zuen kandidaturaren aurkezpenean, "alderdiren batek zerrendak osatzeko arazoak edukitzeko-tan hori EH da" esanez.

PP eta PSE-EEko zerrendak dira nolabaiteko ezusteak edo hutsuneak agertu dituztenak. PPko alkatetzarako zerrenda-burua Alfredo Marco Tabar izatea espero bazen ere, Alfonso Alonso izango da popularren alkategaia. Batzar Nagusieta-rako zerrendaren lehen postua Ramon Rabanera izango da eta Udaletik baztertu den Marco Tabar Foru Legebiltzarrerako presidente moduan aurkeztu dute.

PSE-EEko zerrendan falta dena Andres Sanchez da. 1984tik Udal Batzako partaide izan dena ez da zerrendetan agertzen. PSE-EEren alkategaia Jesus Loza, Ongizate diputatu ohia, izango da eta Fernando Buesaren izena joango da Diputazioko zerrendetan lehena.

UAK, urriko hauteskundeak baino lehen egin zuen bezala, afiliatuen arteko bozka egin du zerrendaburuak nortzuk izango diren aukeratzeko. Afiliatuen erabakiz Jose Antonio Pizarro izango da alkategaia eta Javier Moraza ahal-dun nagusigaia.

L. L. de A.

GEUREKIN MENDIRA HIRUMUGARRIETA-GAINZA

IRTEERA:

Goizeko bederatzia eta erdietan,
Prado kalean, Txapela tabernaren
aurrean. Autobusez joango gara.

ITZULERA:

Arratsaldeko 6ak aldera.

IBILBIDEA:

Guardaetxetik
Igaratzara
abiatuko gara,
Hirumugarrieta
mendira igo, eta
handik Ginzara
abiatuko gara,
autobusa hartzera.

Edozein argibidetarako
deitu telefono honetara:
945 46 41 73 (Oskar)

APIRILA k 18

Ekologistak batuz

Gipuzkoa eta Bizkaian hasitako prozesuari jarraituz, Araban ingurugiroaren alde lan egiten duten hainbat taldek Ekologistak Martxan Araba plataforma sortu dute. Taldea Ekologistak Martxan Euskal Herria-ren barruan integratu da, eta Estatu mailan lan egiten duen Ecologistas en Acción-ekin batera lan egiteko asmoa du. Taldearen helburua Araban arlo horretan lan egiten dutenak biltzea da. Lanari ekiteko irizpide ideologikoak eta egitaraua finkatu dute.

Taldearen independentzia bermatzeko inolako dirulaguntzarik ez eskatzea erabaki dute. Finantziazioa kideen bitartez egingo da; momentuz, 40 pertsonak osatzen dute taldea eta bakoitzak 6.000 pezetako kuota ordainduko du urtero. Ekologistak Martxan Araba-k talde zabala izan nahi du eta era asanblearioan jardungo du, kide guztien iritzia oinarri hartuz.

Sortu den elkarte berriaren lehentasunak Garoña ixtea, Abiadura Handiko Trenaren proiektuaren jarraipen estua egitea, Diputazioaren Mendiei buruzko Araua, jangaien manipulazio genetikoak eta langabezia dira, besteak beste.

L. L. de A.

Euskaraz ere hitz egin daiteke



Gasteizko Udal Batzak bertan lan egiten duten funtzionari eta hiritarren arteko harremanetan euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina martxan jartzea erabaki du. Sindikatuengandik jaso zuten Udaleko politikoei ekimen honi ekiteko proposamena.

Udalak bi ekintza zehatz egingo ditu kanpaina honen barruan. Batetik, funtzionarioek erabiliko duten telefono zenbakien zerrendan langile bakoitzaren izenaren alboan beraien euskara maila adieraziko da. Euskaldun osoen izen-deituren ondoan E letra jarriko da, euskalduntze prozesuan daudela adierazteko P letra erabiliko da eta gaztelera hutsez mintzatzen direnak Cren bidez ezagutuko dira. Era berean euskaldunek "Euskaraz ere badakit" edo "Poliki, euskaraz ere badakit" dioten kartelak izango dituzte mahai gainean, beren euskara mailaren arabera. Horrela hiritar euskaldunek ziur jakingo dute lehen hitza euskaraz eginez gero erantzuna ere euskaraz izango dutela. Bestetik, Udalak gutun bana bidaliko die funtzionario orori: euskaldunei euskaraz mintza daitezen, eta euskara ez dakitenei ikasten has daitezen animatuz.

 L. L. de A.

Arabako txapelaren bila

Prudentzio Deuna-Estibalizko Ama 99 Bertso Txapelketa, edo Arabako Bertsolari Txapelketa Nagusia, martxo eta apirilaren bitartean jokatu da. 24 bertsolarik parte hartuko dute eta Aramaio, Legutio eta Amurriotik pasa eta gero finala Gasteizen izango da, Floridako Kultur Etxean ohi denez, apirilaren 27an.

Lehenengo kanporaketak, final laurdenak, Gasteiz eta Aramaion jokatu ziren, martxoaren 18 eta 26an. Bederatzina bertsolarik esku hartu zuten eta saio bakoitzeko hiru hoberenek finalerdietara pasatzeko aukera izan dute.

Finalerdietan Asier Otamendi, Asier Iriondo, Rikardo Gonzalez de Durana, Oihane Perea, Zigor Enbeitia eta Dani Castaño ditugu. Lehenengo hirurek gehi sailkatutako hiruk Legutioko Kultur Etxean kantatu beharko dute apirilaren 16an arratsaldeko 8etan eta gainontzeko hirurek eta laurdenetatik datozen gainontzekoek, Amurrioko Kultur Etxean astebete beranduago eta ordu berean. Saio bi horietan punturik gehien lortutako seiak finalerako txartela lortuko dute.

Finalean bi fase egongo dira. Saioa seiak hasiko badute ere, lau eliminatu eta beste biek bigarren faseari ekin beharko diote. Guztira hamaseina bertso kantatu beharko dituzte txapeldunak eta txapeldunordeak, zazpi gutxiago lehenengo fasean geratzen direnak.

Finalean Abel Enbeitia arituko da aurkezle eta gai-jartzaile lanak egiten, eta Juanjo Respaldizak, Arantzazu Loidik, Antton Kazabonek eta Jon Abriek osatuko dute epaimahaia.

Saioa eta gero afaria egingo da Txusta tabernan.

 L. L. de A.



Trebiñok erabaki dezala



Trebiñoren Aldeko Plataformak deitutako manifestazioak 2000 lagun inguru bildu zituen Gasteizko kaleetan martxoaren 13ko arratsalde euritsuan. Manifestaziora bildutakoek "Trebiñok erabaki dezala", "Trebiño Araba da" eta "Trebiño Euskaldun" leloak oihukatu zituzten burututako ibilbidean zehar.

PNV, HB, EA, IU-EB, ELA, LAB, CC.OO, USO, STEE-EILAS eta Elkarrik manifestazioarekin bat egin zuten eta erakunde guztien ordezkariak bildu ziren bertara, "Arabako gehiengo politiko eta soziala" ordezkatzuz, buru politikoaren iritziz.

Arabako erakunde eta hiritarrez gain, Burgos eta Mirandan Trebiñoko hiritarren borondatea errespetatua izan dadila eskatzeko sortu diren taldeetako kideak ere etorri ziren Gasteiza. Izan ere, Trebiñoko biztanleen ordezkariak adierazi zuten, "komunikatuen manipulazioaren ginetik pasatu eta jendea-ri zer eskatzen dugun azaltzea lortu dugun heinean, elkartasuna erdietsi dugun Burgos eta Gaztelan ere".

L. L. de A. Edorta Sanz

Etxea eskuratzeko adin jakina behar

Horixe adierazi zuten Gasteizko Udal Batzako buruek Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak burututako pisu zozketa ondoren: izena emandako askok ez zutela etxea behar "batzuek hogeitaz inguru baino ez dute-lako". Hala ere, ez zuten zehaztu etxea izateko adin egokia zein den beren ustez.

Etxebizitza Sailak 353 pisu zozketatu zituen pasa den martxoaren 6an izena emanda zuten 2.600 lagun artean eta Gasteizen 99 etxebizitza eman zituen alokairuan lehen aldiz. Alokairuen hilabeteroko errenta 16.000 eta 28.500 pezeta bitartekoa da eta jabegoan hartzen diren prezioa 5.000.000 eta 9.500.000 pezeta bitartekoa.

Ohi denez, gutxiti fisikoentzako etxeak erreserbatu dira, 9 zehazki, beste 17, seme-alabak dituzten familientzat; eta 105, 35 urte baino gazteagoentzat.

Denbora gutxi barru beste 263 etxebizitza sozial gehiago esleituko dira Gasteizen, Lakua eta Abetxukon. Era berean, hainbat pisu sozial eraikitzen hasiko dira: 27 Alde Zaharrean, 104 Lakuan eta 106 Abetxukon.

L. L. de A.

Arabako kanpusa haziz doa

Gasteizko Fakultateak Alemaniar Filologiako ikasketak eskainiko ditu ziurrenik datorren ikasturtetik aurrera. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak azken erantzuna eman behar duen arren, Filologiako fakultateak beste titulu bat eman ahal izateko aukera handiak daudela dirudi.

Filologia, Geografia eta Historiako fakultatea Araban ikasle gehien hartzen dituen da, kanpuseko 7.000tik 2.500 inguru 1998-1999 ikasturtean, eta ikasketa berriekin ikasle kopurua dexente igoko dela ematen du. Izan ere, Euskal Herriko unibertsitateetan ez dago Alemaniar Filologia ikasterik, ezta ingurukoetan ere, eta azken urteotan lizentziatuen eskaera nabarmenki igo da. Arabako kanpusak 21 ikasketa hartzen ditu jadanik, eta errektoreordeak eskatutako filologiako ikasketak hartzeko gai dela adierazi du behin baino gehiagotan.

EHUko Arabako Kanpusak duela bost urte egin zion eskaera hau lehen aldiz Hezkuntza Sailari eta aurten beste sei titulu gehiago ematen hasia nahi du, Ingurugiro Zientziak besteak beste.

L. L. de A.

TXUSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA:

BAT ERE EZ

Mateo Moraza kalea GASTEIZ

Xabier
taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aiztogile kalea (KUTXI), 23

EL
BAR
Kutxi

e
g
u
n
e
k
o
m
e
n
u
a

Bakearen oinarriak

Goiuriko Jauregian egiten diren Orain Bakea hiritarren bileretan kartzela politikoa, lurraldetasuna eta komunikabideen gainekeo gaiak jorratu dira, besteak beste, martxoan barrena, otsailean hasitakoari jarraituz.

Martxoaren 1ean Senideak eta Salhaketako ordezkari bana eta Txema Martinez de Birgala, gasteiztar preso ohia bildu ziren kartzela politikari buruz hitz egiteko. Dispersioa eta presoak politikoki erabiltzen ari direla salatzeaz gain, legea betez gero 100 bat euskal preso politikok kalean egon behar luketela gogoratu zuten.

Martxoko bigarren astelehenean lurraldetasuna izan zuten hizpide Xabier Palacios, Jose Ramon Rekalde eta Xabier Aierdi EHUko irakasleek. Rekaldek euskal abertzale eta espainiar nazionalisten kopurua zehazten denbora galdu barik, gatazka konponbidean jarri behar dela esan zuen, eta Aierdik su-etena aurretik borroka armatuaren aitzakian baztertutako arazoak, lurraldetasuna kasu, eztabaidatzeko garaia dela uste du.

Udalak deitutako hileko hirugarren bileran komunikabideek gatazkan eta gatazkaren konponbiderako hartu beharreko jarreraz aritu ziren Mariano Ferrer, Jesus Barredo eta Gontza Toral kazetariak, besteak beste.

L. L. de A. Edorta Sanz



Arabako Musika Gida Adi talde guztiak!

Izadi Editorialak, laugarren urtez jarraian, Arabako Musika Taldeen gida kaleratu-ko du laister.

Bertan agertzeko interesa duten musika talde guztiek Diaz de Olano Marg. 22, behera bidali dezakete beraien informazioa (taldearen ezaugarri nagusiak, partaideak, eta kontaktatzeko telefonoa).

Informazio gehiago nahi izanez gero 945 24 52 69 telefonora dei dezakezue.

D.A.V.

San Kristobal auzoan giro aparta La Calle tabernarekin

Martxoaren 24ko iluntze partean ireki zituen bere ateak itxita egon den San Kristobal auzoko La Calle tabernak, berau inauguratzeko honako egitarauaz gozatu ahal izan zelarik: has- teko, Adurtza Dantza Taldea Ingu- rutxo dantzarekin; bigarrenik, gailego batek egindako keimada, argiak itzali- ta eta araoa eta guzti, bertaratutakoen artean banatu zen; eta azkenik, Txala Zarata bikotearen eskutik -Txema eta Mikel (beraiekin kontaktuan jartzeko,

hona hemen txala-mobilaren zenba- kiaz: 610 03 36 36)-, txalaparta ema- naldi bikaina.

La Calle tabernak ekitaldi kulturalak eskaini nahi ditu asteazkenero. Datozen asteotan Arrate eta Ixabel (Bitoitza Kathru), eta Karlos Subijana bertan izango direla jakin dugu. Beraz, badakizue!, La Calle taberna, Dultzaina kalea 10, 945 23 40 48.

E.B.

1 x 2 = 2 (2.000 gara / 4.000 izan gaitzezke)

Harpidedun!:

zure alba, ama, anata, arreb, iseba, osaba, lehengusua, lehengusina, semea, alaba, aitona, amona, iloba, berramona, berraitona, biloba, aitagiarraba, amagiarraba, suhla, erraina, lagun eta ezagunak...

... EGIN ITZAZU HARPEDEDUN

Izen Deiturak: _____			
Telefonoa _____	Helbidea: _____	Kodea _____	
Herria: _____	Jaiotze data: _____	Lanbidea: _____	
Kontu zenbakia (20 zenbaki)			
Entitatea _____	Sukurtsala _____	K.D. _____	Kontu zenbakia _____

Geu Gasteiz aldizkaria. Pedro Asua, 2. 3a. 01008 tfnoa.: 945 22 21 53



Yolanda Lopez de Heredia eta Fernando Blancoren zuzendari-
tzapean SAMAK (Arabako Ikus-entzunezko Medioen Elkarteak)
bildutako taldeak haurrentzako bideo sorta bat egin du.

Bideoak ikastetxeetan ikusteko sortuak dira eta garai bateko
neska-mutilok Barrio Sesamo famatuan ikusitako antzerako kon-
tzeptuak egungo umeei euskaraz emateko balioko dute. Walt
Disneyk egindako ekoizpenetara ohitutako haurrentzat lan egi-
tea nolabaiteko oztopoa izan daitekeen arren, lan koherentea
eta zaindua dela azpimarratzen dute egileek: "Gure mezua
horrelako lanak hemen, Gasteiztik irten gabe, egin daitezkeela
da". Yolanda eta Fernandok azaldu dute lana nola burutu den.

"Oso lan zaindua egin dugu"

· Azaldu ezazue nolakoak diren
egin dituzuen bideoak.

· Hiru bideo zinta dira, zeinetan
20 minutuko bina kapitulu daude.
Denak batera saltzen dira eta ira-
kasleekin egiteko unitate didakti-
ko bat dute.

· Eskola, ikaslotei eskaintzen zaiz-
kie, baina dendetan saltzeko asmoa
al dago?

· Nire ustez denborarekin salgai
jarriko dira. Momentuz oso pro-
duktu berezia dela pentsatzen da,
hau da, irakasleekin ikustekoa. Ni
ez nago oso ados. Irakasleek bi-
deekin gelan gauza gehiago egi-
teko parada badute ere, gurasoe-
kin ikusteko ere proposak baitira.

· Nola sortu zen bideoak egiteko
idea?

· Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza
Sailak EIMAS egitarauaren bidez

Goiaz produktorari eman zion
enkargua eta beraiek deitu zigun-
ten lana aurrera eramateko. Nik
lan taldea bildu, eta bi hilabete
inguru egon ginen dekoratuak eta
panpinak prestatzen gehi beste bi
aste grabatzen.

· Zer da bideoek kontatzen dutena?

· Lau dekoratu dira: basoa, erreka
ingurua, untxi-zulo bat eta horren
irteera. Pertsonaia nagusiak untxi
familia bat -aita-amak, semea eta
honen laguna-, eta hauekin bate-
ra, katagorri familia bat dira -gu-
rasoak eta Kattalin alaba txikia-.
Gainontzeko pertsonaiak hodeia,
izarra, eguzkia, hontza, igela eta
azeri gaiztoa dira. Untxi mutiko-
ak eta katagorri neskak haurrak
dira, umeak bezala daude jantzi-
ta, eta hauen modura jolasten
dute, jostailuekin. Lau eta zazpi
urte bitarteko neska-mutilak dira
untxi eta katagorriek irudikatzen



ALTZARIAK

Errementari Kalea (Herre) 38, behea Ifnoa.: 945 25 25 03 · 01013 GASTEIZ

BASERRITAR ERAKO ALTZARIAK

berreskuraturiko egurrez eginak

eta **OSAGARRIAK**

artisans lanak, lorategi eta

barrualdeko-proiektuak egiten ditugu



BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73



**"Gure mezua
horrelako
lanak hemen,
Gasteiztik
irten gabe,
egin daitezke-
ela da".**

dutena. Istorio guztien testuingurua basoa da, basoa udazkenean, eta neska-mutil txikiei hainbat kontzeptu irakasten saiatzen gara: sakontasuna, kantitateak, gauzak kendu barik eskatu egin behar direla,... Horretaz gain, kapitulu bakoitzean kanta zahar bat abesten da.

- Nola egin zenuten grabaketa?
- Oso xelebrea izan zen, zeren gidoia era literarioan idatzita baitzegoen, eta Idoiak, euskararen jarraipena egin zuen neska, hura irakurri behar zuen panpinak mugitzen zituztenek zer egin jakin zezaten, baina irakurri beharrean interpretatu egin zuen, eta horrek izugarri lagundu zuen; batetik, panpinak mugitzen zituztenentzat errazago izateagatik eta, bestetik, bikoizketa bere ahotsaren gainean egin zelako, bikoizketarako inolako oinarririk ez genuela izango uste genuenean.

- Panpinek maneiataile bana behar al dute?
- Bai. Maneiataileak lau izan ziren eta eroso lan egin ahal izateko panpinentzat errail bi egin ziren presatatu eszenatokian: bat gertuago eta beste bat urrutiago. Horrela sakontasuna ere lortu genuen. Walt Disneyra ohituta oso baliabide tek-

niko mugatuak direla eman dezake, baina gauzak kontatzeko balio dute.

Gure helburua irudiek marrazkien antzik ez izatea zen, eta kontakizuna koherentea izatea.

- Bikoizketa nola egiten da? Filmeetakoa bezala?
- Bai, berdin. Katangan egin genuen. Hamabi bikoizle izan genituen eta

oso polita izan zen ahoskera desberdinak bildu genituelako: Iparraldekoa, gipuzkera, bizkaiera eta euskaldun berriren bat ere lanean ibili da.

- Panpinak eta dekoratuak nola eta zerekin daude eginak?
- Panpinak goma-aparez eta dekoratuak kartoiz. Dekoratuetan benetako landareak ere sartu genituen

Bertsoaren aukera

Bertsolari gazteen eskutik sortutako bertsogintza berriak aukera ugari duela uste dute SAMAn. Tradizio zaharretik datozen forma berrituak eta gazteenen irudimena eta gogoia ikus-entzunezko produktu interesgarria sortzeko lehengaia ezinhobea dira euren aburuz, eta oraindik gehiegi zehaztu ez badute ere, jadanik esparru horretan lan egiteko ideien bat daukatela aurreratu dute.

Proiektu honen bi puntu garrantzitsu azpimarratzen dituzte. Batetik, bertsoaren doinua, errima eta sonoritatea; eta bestetik, bertsolari gazteengan somatzen duten interes kulturala. "Bertsogintza tradizioaletik at azken urteotan egin diren esperientziak oso politak dira, ikus-entzunezkoen arloan oso ondo geratuko zirela deritzogu, gainera egitasmo ugari sortu dira gazteenen esku, kultura mailan ezin egona nabari zaie eta horrek aukera handiak daudela esan nahi du".

SAMako arduradunek esaten dutenez, euskalduna ez izanda ere, bertsolaritzak interes berezia dauka, "zoltasunarekin esperimenduak egitea polita izango litzateke benetan, bertsoak grabatu eta euskara eta bertsoez ezer ez dakiten herrietara eraman errima preziatzen duten ikus-teko..."

LIBURUDENDA

axular

Arka plaza, 11 - 01005 GASTEIZ



MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Egia da SAMAn filmatzeko asmoa geneukala, baina antzeztokia erai-ki genuenean handiegia zela kontu-



· Ez, guztiak ez ginen elebidunak, baina ez zen inolako arazorik egon, guztiz kontrakoa, uste dut oso aberasgarria izan zela denontzat. Oso kontent bukatu genuen lana.

 S.A.M.A

Arduradunek azaltzen dutenez, film laburra egiteko asmoa duen jendea egon bada-
go, baina horren prozesu kon-
plexua denez, askotan arazo-
tan ito egiten dira xedea erdie-
tsi aurretik, *"batez ere hasten
ari direnak, gazteak. Guk ahol-
kularitza emateaz gain, akto-
re, makilatzaille, muntaketa
arduradun, gidoigile eta aba-
rrekin kontaktuan jar ditzake-
gu"*.

CEGASA
INTERNATIONAL
ALCALINA

CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
 Artapadura, 11 - Apdo. 355
 Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

 **rdatz**

**itzulpen eta
euskara zerbitzuak**

Arana kalea, 5 - 1
Tfnoa: 945-26 44 32
01002 - GASTEIZ

Arabaldea

**Idatziz eta Irakurrriz
era dibertigarrian eginez
dexente ikas daiteke**

Berriak euskaraz entzun edo irakurri nahi dituzuen guztiok etorkizunean lasai ibil zaitezke, geroa inoiz baino euskaldunagoa baitator. Euskaraz diren aldizkari zein gainontzeko komunikabide guztiek errelebu galanta izango dute urte batzuk barru.

"Arabaldea" aldizkaria ikastetxetik informazioaren mundura hurbiltzeko oso esperientzia

Hogeita lau bat ikastetxek (A, B eta D ereduak) parte hartzen dute Eusko Jaurlaritzako Pedagogi Aholku-laritza Taldeko (PAT-COP) Euskara Zerbitzuko langileek garatutako ekimen honetan. Argitarapen honek heziketa-talde guztien partetik -irakasleak, ikasleak, gurasoak...- oso balorazio baikorrak jaso arren, behar dituen baliabide ekonomikoak sustatzea eta sendotzea da talde eragilea (PAT-COP) kezkatzen duena. Dena ez da arrosa kolorekoa.

GEU GASTEIZ aldizkari orrialdeak aprobetxatuz PAT-COPeko Euskara Zerbitzuko kideek proiektu eder honen egoera larria ezagutarazi nahi dute. Beharbada dirudunen

**"Arabaldea"
aldizkaria zentzu
horrekin jaio zen
eta zentzu horrekin
bizirik mantendu
nahi da.**



kontzientziak berpiz daitezen, "Arabaldea" aldizkariaren ekimena ikastetxe askok bere heziketa-programazioaren barnean kokatzen dutela azpimarra daiteke. Gainera inguruan sortzen den lan dinamika oso aberasgarria izan daiteke ikasleentzat.

Irudimena idazmenaz nolabait lantzea, berrien tratamendua eta komunikabideen egitura aztertzea



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO

ERDIALDE

LAKUA

ZARAMAGA

RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta
kotoizko ebunak
eskuz margotuak"
- ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59

vitrales



**MIKEL
DELIKA**

**BEIRATE
ESTUDIOA**

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

ARTEPAN





*Artisau
Okindegia eta
Goxotegia*

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37

01005 GASTEIZ

HAUEK ERE BAI...



Arabaldea



zein bakoitzaren
iritzia edonoren aurrean
defendatzea dira, besteak beste,
haurrek aldizkariaren bitartez era
pedagogikoaz egin ditzaketen ekin-
tzak.

Argi dago, aitzitik, sustapen eko-
nomiko hori heldu ezean aldizka-
riak gorriak pasatuko lituzkeela
aurrera jarraitzeko.

Lan dinamika

"Arabaldea" argitaratzearena ez da
txantxetako gauza. Ikasturte bakoit-
tzean hiru ale plazaratzeko Euskara
Zerbitzuko langileek buru-belarri
ibili behar dute. Hasieran bilera oro-
kor bat gauzatzen da ikastetxe guz-
tietako irakasle arduradunekin.
Gaiak eta sailak behin hautatuta,
lana ikastetxe guztien artean bana-
tzen da; egutegi bat eginez, errespe-
tatu behar diren epeak zehazten
dira. Askotan, gizarte maila guztie-

tan gertatu ohi
bezala, PAT-COPEko koordi-
natzaileek berrien atzetik, ikastetxe-
en atzetik, ibili behar dute lanak
denboraz eskuratzeko. Umeek
berriak klasean egin ondoren, ikas-
tetxe bakoitzeko irakasle arduradu-
nak egokienak aukeratu behar ditu
aldizkarian sartzeko. Gero maketatu
eta atera ohi dituzten 2000 aleak
banatzen dira.

Aldizkaria gure lurraldeko ikaste-
txeen arteko harremanak sendotze-
ko oso bitartekari ona da. Gainera
ikasleek astiro-astiro bere ingurua
ezagut dezakete, aldizkarian argita-
ratzen diren erreportajeer esker.
Gure kulturak, gure ohiturak..., oso
leku preziatua betetzen dute aldiz-
karian. Nola hobeto ezagutu gure
lurraldea bestela "Arabaldea" iraku-
rriz baino?

Raul Saez de Buruaga
Edorta Sanz

TALDE ERAGILEA

PAT-COPEko langileen lanari esker orain dela
hiru urte aldizkari honen lehenengo zenbakiak
argia ikusi zuen. Irakasleei klaseko lana erraztu
nahian, trebakuntzarako ikastaroak prestatzen dira
urtero. Horrela haurrei geroko lanean sor dakiz-
kiekeen zalantzei bidea ematen zaie.

PAT-COPEko langileak edozein iradokizuni ire-
kiak daude. Beraz, ekimen honi laguntzeko ideia-
ren bat baldin baduzue, jar zaitezte haiekin harre-
manetan, jarraian zehazten dizkizuegun telefono
zenbakietan.

Haiek gustura eta zu pozik!

pat/cop



Vitoria-Gasteiz

www.copgasteiz.com

multis@copgasteiz.com

directora@copgasteiz.com

trasmis@copgasteiz.com

informa@copgasteiz.com

acordos@copgasteiz.com

Gasteiz hiribidea, 93
01009 Vitoria-Gasteiz
Tfnoa.: 945 229300
Faxa: 945 242219

ETORKIZUNeko KAZETARIAK

Umeak dira egitasmo honen benetako protagonistak. Haiei zuzendua sortu zen aldizkaria. Haiek dira bai egileak, baita irakurleak ere, haiek dira aldi berean ikasle eta irakasle. Pozik daude eta **GEU GASTEIZ**

aldizkariko orrialdeotan beren iritzia eza-gutarazteko eskolaren bat edo beste galdu behar badute, are gusturago. Jarraian Lope de Gereñuko ikasleek modu alaian adierazitakoak doazkizue.



IÑAKI ARDUERO. 11 urte

Baskonia saskibaloit taldearen inguruko berria egin zuen azken zenbakian.

"Albisteak idaztea ipuin bat 'sobre la marcha' idaztea bezain dibertigarria da. Atsegin dut idaztea".



JAVIER RODRIGO. 10 urte.

Garbitzaileen lana errespetatadain, iritzi artikulu borobila idatzi zuen mutiko honek. "Idatziz irudimena lantzen da. Nik badakit nola hasi istorioa baina ez dakit nola amaituko den".



ENMA GAUSA. 10 urte.

Azkenengo bi zenbakietan esku hartu du. Titanic filma hainbeste maite zuen, ezen animatu baitzen zeozer idaztera.

"Kazetarien lana erraza da, gustuko dutenaz hitz egiten baitute".



NEREA ROJO. 10 urte.

Tximinoei buruzko berria egin zuen telebistan programa bat ikusi ondoren.

"Ez da zaila izan behar kazetarien lana, hala ere egunero lehenengo pentsatzea eta gero horren gainean idazteak gogorra behar du izan".



ITSASO GONZALEZ. 11 urte.

Momentuz ez du aldizkarian ezer argitaratu baina seguraski hemendik gutxira gauzak aldatuko dira.

"Egunero informazioaren bila ibiltzea zaila izan behar da. Halere, nik gustuko dut idaztea".



ALBERTO DIAZ. 10 urte.

Bi aldiz idatzi du aldizkarian. Tau Baskoniaz eta ingurugiroaren kutsaduraz aritu zen.

"Kazetarien lana ez da oso zaila, gai bat hautatu behar dute eta horren inguruan idatzi".



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkaturua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ

Deiak

ADI

HARPIDEDUNAK!!

*Datozen asteetan 1999ko harpidetza
kuota kobratzeari ekingo diogu.*

Aurten **1.800** pezetakoa izango da


*Eskerrik asko guztioi
gurekin izateagatik,
behar zaituztegu eta!*

**EGIN
EZAZU
ERRENTAREN
AITORPENA
EUSKARAZ!!**



APAINDURA


Zerkabarren (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ



IÑIGO, SKATER-A

Apirileko
LAGUNA

Gasteiz, guztiok dakigun bezala oso garbia da (beno, azken bolada honetan...) baina ez genekien skate-z ibiltzeko lekurik hoberenetako bat zela, behintzat halaxe aitortu digu Iñigok. Iñigo, txakurra edo katua bueltatxo bat ematera atera beharrean, bere skate-a hartu eta eskailerak edo salto egiteko leku egokien bila aritzen da egunero. Orain dela urte pare bat patinak ziren, hauek utzi eta salto ikusgarriak egin nahian skate-aren lagun bereiztezina egin zen. Gasteizko Foru plaza, Amerika plaza, edota San Martingo Skate Park-a, skate gune apropos bilakatu dira era honetako kirolean dabilentzat.



"USOA, HEGAN ETORRITAKO NESKATOA"

PATXI ZUBIZARRETA.
SIBERIA TRENEKO IPUINAK
MARRAZKIAK: ASUN BALZOLA
EREIN, 1999

Kukua, Afrikatik etortzen den hegazti migratzaile baten izena da. Kasai, Afrikatik etorri zen neskatala maitagarri baten izena da. Kukuaren antzera, Kasai hegan etorri zen. Afrikatik hegazkin batean bidali zuten. Horrexegatik hemen denek Usoa esaten diote, hegan etorritako neskatoa. Eta aurtengo udaberrian ere kukua Afrikatik etorri da: ku-ku, ku-ku! Txanponak sakeletan, haur guztiak pozaren pozez dabilta. Baina Usoa serio jarri da, eta urduri, eta kopetilun...

ZER DIRA ZURETZAT...



IÑAKI: 7 URTE

Sorginek ipurdi lodia eta sudur handia dute, tuntunak eta txarrak dira eta garatzak dauzkate. Nik nire ikastolan benetako sorginak ikusi ditut. Basoetan bizi dira, beltzez janzten dira eta ez dira nire gustukoak.



DIA: 7 URTE

Hauen etxebizitza basoko gazteluak dira eta hara joateko erratz hegalaria erabiltzen dituzte. Beren bizitza osoa maltzurkeriak egiten igarotzen dute.


SORGINAK?



CINTHYA: 7 URTE

Emakume zahar eta gaizto hauek erratz ertain eta magikoa daramate hegan egiteko eta horren bidez kobazuloetara joateko. Gainera ez dituzte ume txikiak maite.

GEURE ARTISTAK



Idoia (4 urte)



Iñaki (5 urte)



Paula (3 urte)



Manex (5 urte)



Gilen (3 urte)



Errege Atea, 9 · GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



arropa eta osagarriak

HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!

Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38




**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33
GASTEIZ



JATETXEA

Aiztogile (Kutxi), 26 - tfnoa: 945 28 81 47
GASTEIZ

**EUSKAL LABELA
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

**Gasteizko
haragitegirik zaharrena**

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Lehiaketak

Bidaieri Haundien literatur lehiaketa

Aramaioko Udaletxeak antolatzen duen Sagitario Saria, gutxienez Europako Mendebaldera bidaia duen edozein pertsona aurkeztu daiteke. Bertan, bidaian zehar bizitakoak kontaketa literario batean aurkeztuko ditu partehartzaileak.

Kontakizunak aurkezteko epea: 1999ko irailaren 16an.
Saria: 120.000 pta



XI Rikardo Arregi Kazetaritza saria

Kontuan hartuta euskararen normalkuntzak ezinbestez behar dituela euskaraz egindako kazetaritza eta, oro har, komunikazio prestu eta moderno, kalitatea, Andoingo Udalak XI Rikardo Arregi Kazetaritza sarirako deialdia egiten du.

1998ko maiatzaren 16tik 1999ko maiatzaren 15era bitartean egunkari eta aldizkarietan edo irrati eta telebistetan euskaraz plazaratu izan diren lanak, hala nola aipatu epe eta komunikabide horietan kazetaritza-lanak plazaratu dituztenek daukate saria eskuratzeko aukera.

Ipuin erotikoen 4.lehiaketa

Euskarabilak, Basauriko euskaldunon Elkartek, antolatzen du lehiaketa hau. Lan guztiek argitaragabeak eta euskaraz idatziak izan beharko dute. Lanek ipuin erotikoak izan beharko dute, eta beren luzera bi eta sei orrialde artekoa izan beharko da.

Lanak emateko azken eguna: apirilaren 23a izango da.
1.go saria: 60.000 pta.



Artea Kafetegi eta Tabernetan

- ABADIA.
- BLANCA HERRÁN
- AJURIA.
- BEATRIZ ABASCAL HERMOSILLA.
- AMARICA.
- Zezenketak Kartel erakusketa
- ARTEMIS.
- PAULINO LAZARO
- ASTORIA.
- JOSEFA NUÑEZ
- BELINTXON.
- RUBÉN Aerografiak
- DUBLIN.
- GERARDO ARMESTO
- Pub CANGURO ROJO.
- M^a TERESA CORRAL
- DUKESSA.
- JOSEP OLIVERAS
- ERPIDEA jatetxea.
- LUIS CASTILLO

- LA GALERIA jatetxea.
- LAZARO LAZARO
- GURIDI.
- M^a LUISA ETXEZARRAGA
- IBÚ.
- "Rosas de hierro" Erakusketa
- J.J. BOLERO.
- Oleo Erakusketa
- MATISSE.
- Oleo Erakusketa
- ORBELA jatetxea.
- DAVID GARCIA
- PANAMA.
- IDOIA USOBIAGA
- EL PUNTO NEGRO.
- Oleo Erakusketa
- PASAR SENI.
- ZEHAR 1998 - IGOR AGUIRRE
- EL TUNEL.
- MISSAEL



Takolo, Pirritx eta Porrotx: "Baserrian"

Takolo, Pirritx eta Porrotx amona Josefinarekin baserria joan dira eguna pasatzera. Beren jostailu guztiak etxean utzi dituzte gordeta, baserrian ongi pasatzeko horien beharrik ez dute. Nola dibertitzen dira ba gure lagunak baserrian?

Etzeko lanetan lagunduz, Pantxika astoarekin dantza eginez, oilategira arrautzen bila joanaz... Baina... non ote da Margarita oiloa? Oilategian ez da ageri! Bila joan beharko dugu!!

Haurrek ederki asko pasako dute eguna baserrian Takolo, Pirritx eta Porrotxekin. Hauen bihurrikeria, jolas eta tranpekin gozatuko dute, eta pailazoekin batera kantatu eta dantzatuko dute. Egun zoragarria igaroko dugu denok, baina, bat-batean... espero ez genuen bisita izango dugu. Melontzio Makalontzio diruzale amorratuak baserria erosi nahi du, hau bota eta bertan hamar solairutako etxea, hotela, aireportua eta hipermerkatua eraikitzeko. Eta behiak? eta baratzak? eta baserria?... eta amona?...

Amonak baserria bizirik nahi du, baita pailazoen ere, Melontzio Makalontzio, ordea, maltzurra eta burugorria da.

Zatoz baserrira!

Apirilak 25 - 18:00etan.
Principal Antzokian

Prudentzio Deuna - Estibalizko Ama

X. BERTSO SARIA

**FINAL
ERDIAK:**

apirilak 16, ostirala
LEGUTIOko Kultur Etxean
arratsaldeko 20:00etan

apirilak 23, ostirala
AMURRIOko Kultur Etxean
arratsaldeko 20:00etan

FINALA

apirilak 27, asteartea
Florida Kultur Etxean
arratsaldeko 19:00etan



MIKO
izozkiak

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile (KORRE), 14
(San Migeleko Pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

PLATÓ
TABERNA

Zaldian Plaza, 10 - Tfno.: 945 22 65 64

**ONGI
ETORRI**
Xurru

KUTXI 103
GASTEIZ

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!
bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39



axular
LIBURUDENDA-ren



MANUEL LEGUINECHE
"Sobre el volcán"
EDICIONES DEL BRONCE, 1999

1941. urtean Arrazuan jaiotako idazlearen liburu bikainetako bat dugu Sobre el volcán. Hariaren haria, bidaia bat, jakina. Herria, Ertamerika. Nondik nora? Tijuanaatik Panamara. Nola? Trenetaz eta autobusez, herria biziz. Paisaiak eta bidean aurkitu gizon-emakumeak abilezia handiz deskribatuak, batetik, eta biolentzia urte gogorak -sumendia-, bestetik, nahasten dira bertan.

E. B. Z.

GEURE POSTONTZIA



Jose Manuel Beltran Urzelai

(EZKONDU BAINO LEHEN, KONTU ZER EGIN BEHAR DEN)

Gurasoekin esne mamitan
duzu bizitza librea,
mundu zoriontsu horretan zara
momentuz jaun (e)ta jabea.
Janaria mahaian, jantzi garbiak,
erantzunkizun gabea...
Baina lasaitu, bai mainatsua,
hautatu duzu bidea.
Behin edo behin zuk entzungo duzu
"nere alaba maitea".

(ZURI GUZTIAK EZ DIRA IRINAK)

Ezkontza eta buzkantza bero
berorik duzu hartzea,
bebingoan urtzen dira ferekak
(e)ta itzaltzen zaizu labea.
Etxeko lanak antolatzeke
zu izango zara habea,
baina lasaitu, neska ziratsa,
beteko duzu xedea
behin edo behin zuk entzungo duzu
"nere laztana maitea".

(PORRU EGINDA PUTZU TXIKIAN ITO)

Gau eta egun negar batean
izango duzu umea,
denbora eza, milaka kezka,
ipurdian kakaz oreka.
Etxea nazka bilakatu da
sehaskan dago katea,
betebeharrak ugaltzen dira
baina lasaitu andrea,
behin edo behin zuk entzungo duzu
"nere amatxo maitea".

XIXILU
JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ

IRUSTA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ

Argazki -
Erramun

Heradio Fournier, 23 Askatasun kalea, 5
Tfnoa: 13 71 02 Tfnoa: 26 19 91
01006 01004

AMILAMIA
arropa eta osagarriak

Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ

jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA

Aiztogile (KUTXI) kalean



IVAN URIONDO

Ivan Uriondo kirolaria musher dugu. Musher hitza ezezaguna izango da askorentzat, eta ez da harritzekoa, Araban bi musher bakarrik baititugu.

Musherrak trineoz ibiltzen dira, 16 txakur edo gehiago gidatzen dituzte, eta Alaskan dute jatorria. Horrela izanda ere, gure protagonista Gasteizkoa da; orain bi urte hasi zen, eta ondo, gainera, aurten Monegroseko eta Bizkaiko txapelketak bereganatu ditu eta.

· Arabar bat trineo txapelketen lehian; ez al da bitxi samarra? Aizu, motel, hau ez da Alaska, futbola edo saskibaloia zenituen. Zer aukeratu, eta trineoak?

· Ezberdina izateaz gain, dibertigarriagoa da trineoz ibiltzea. Gainera, futbolean edo saskibaloian milaka lagun aritzen dira, eta niri bide berriak irekitzea gustatu zait betidanik.

· Zeintzuk egon behar dute sasoi hobean, txakurrek ala txakurrak agintzen dituztenek?

· Txakurrek zein hauek agintzen dituenak, guztiek batera. Animaliek

lan izugarria egin ohi dute, baina aldapa gora denean, musher-ak (gidaria) bultzatzen du trineoa. Kontrakoa pentsa daitekeen arren, txakurrek ez dute dena egiten.

· Gizon-emakumeen lagunik onena txakurra da?

· Nik uste dut baietz. Mendian esa-

terako lagunik onena dugu, beti alboan baituzu. Lasai ez zaudenean, egoera txarrak jasan behar dituzunean... hor dago beti laguntzeko prest.

· Zure txakurrek esan dezakete: "txakur bat bezala zaindu naute".

· Ez, ezta pentsatu ere. Ni baino

"TXAKURRA GIZON EMAKUMEEN LAGUNIK ONENA DA"

Kirolak

hobeto bizi dira. Txakur dendako janaririk onena eramaten diet, astearteetan txahal ederra, egunero txangoak, zapata erosoak... Ezin daitezke kexu izan.

· Non ikasten da trineoak gidatzen?
· Honetan ez dago irakaslerik, niri Bergarako lagun batek irakatsi zidan, Garitanok, hain zuzen. Une txarretan laguntza handia eskaini dit. Trineoan ezin zara beldurtia izan, eta aurrera egin behar duzu beti.

Dirurik ez

· Juan Carlos Najera Alaskatik itzuli da, Idita Bike lehiaketan parte hartu ondoren; hain zuzen ere, Alaskan trineo txapelketa garrantzitsuak daude. Noiz abiatuko da harantz Ivan Uriondo?

· Oraintxe bertan joango nintzateke, baina ez daukat laguntza ekonomikorik. Alaskan munduko muskerrik onenak ez ezik, txapelketa-rik garrantzitsuenak ere baditugu, Iditarod lasterketa, kasu. Txakurrek 2.000 kilometro baino gehiago egin behar izaten dituzte. Halere, babeslerik edo dirulaguntzarik ez dudana bitartean, ez daukat hara joaterik.

"Nire txakurrak ni baino hobeto bizi dira"



· Zuk Zarate herritik Gorbeaiako gailurrera heltzeko bi ordu inguru eman behar dituzu ibiltzen. Zenbat denbora behar duzu trineoz egiteko?

· Bideak gora egiten duenez, 50 bat minutu. Aldapa beheran 40 kilometro orduko erraz egiten ditugu, baina, normalean, 25 bat. Markarik onenak Alaskan lortzen dira, haiek, batezbeste, 35 kilometro orduko egiten baitituzte.

· Egun, trineo txapelketa bat Araban antolatzea ametsa al da?

· Bai, Araban ezinezkoa da. Lehen eta behin, ez daukagulako Federaziorik. Horren ondorioz, Nafarrokoan eman behar izan dut izena. Horrez aparte, instituzioek ez digute inolako laguntzarik

eskaintzen, beraz, hemen ez dago ezer egiterik. Kirol honetan alde txarrak asko dira.

· Zure txakurretan bat Pirinioetan gal daiteke?

· Ez, ez da posible. Trineoa 16 txakurrek bultzaten dute, baina aurreneko biak gidariak dira. Horiek edozein lekutan utzi arren, etxera itzultzen dira beti.

· Noiz hasi zinen trineoz ibiltzen?

· Orain bi urte, baina lehiaketetan aurten hasi naiz, gehienbat. Monegroseko eta Bizkaiko txapelketetan irabazlea izan naiz, eta denboraldia bukatu baino lehen, bi lasterketa gehiago egin behar ditut. Aurreneko postuetan sartzeko, ordu



HEGOALDE

matrikula zaitez!

Jose Lejarreta 9 behea · tfnoa 945 28 41 96 · 01003 GASTEIZ



zure lore sortak

ALDABE 6, BEHEA
tfnoa: 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

asko eman behar dituzu. Ni, adibidez, goizean hiru bat ordu egoten naiz txakurrekin, eta arratsaldean lau orduko entrenamendua egiten dut. Ez daukazu astirik ezer egiteko, ezta emaztegairik izateko ere. Hain zuzen ere, orain gutxi emaztegiak eta biok utzi dugu.

· Alkandora beltza daramazun arren, zuri kolorea izugarri gustatu behar zaizu?

· Bai, gustatzen zait, baina zenbaitetan nekatzen nau. Elurretan oso une latzak igarotzen dituzunez, gorrotatzen duzu batzuetan. Esaterako, Pirinioetako azken norgehiagokan, hamar kilo galdu ondoren, nazkatuta itzuli nintzen.

· Zenbat diru beharrezkoa da hilean zure txakur bat zaintzeko?

· 13.000 pezeta inguru. Nik ezin ditut 16 txakur zaindu, ondorioz, ordaindu behar dut zaintzeko. Janarian 5.000 pezeta, eta gainerako zerbitzuetan 6.000 bat.

· Zer da musher bat? Zenbat zarete Gasteizen?

· Musher hitza frantsesetik dator, eta 'aurrera egin' esan nahi du. Bestaldekik, Gasteizen bi musher gara egun. Zorionez, atzetik gazte pare bat ikasten hasi dira oraintxe.

Eskale bat instituzioetan

· Zuk diharduzun kirolak ez du sosik ematen, ezta ospetsua egin ere. Beraz, gustatzen zaizulako egingo duzu?

· Horixe da gakoa. Bakardadea, mendiaren edertasuna, txakurrak... Gogoan dut Pirinioetako etapa bat: Oso gaizki nengoen arren, gau osoa eman genuen trineo gainean. Zeruian ilargia zen nagusi, eta lehen aipatzen nizun bakardadea lagun nuen. Halere, txakurrek ni zenbat

eta gaizkiago ikusi, orduan eta gehiago bultzatzen zuten. Zoragarria izan zen hori.

· Hortaz, Gasteizko negu gorriak eta luzeak atsegin dituzu?

· Nire ustez, motzegia da. Gasteizen elur handiak egitea dut amets, hiritik trineoz ibiltzeko.

· Zer nolako erantzuna jasotzen duzu, instituzioetara edo enpresa pribatuetara diru eske joaten zarenean?

· Eskalea ematen duzu instituzioetan eta bulegoetan. Batzuek hori

kirola ez dela aipatzen dizute, beste batzuek ez zarela elkarte batekoa... Behin baino gehiagotan, malkoei eutsi ezinean irten naiz handik, baina aurrera egiten duzu beti. Futbolean eta saskibaloian milioiak eta milioiak xahutzen dituzte, eta trineoetarako ezer ez, bakoitzak 16 txakur zaindu behar baditugu ere.

· Non eros daiteke trineo bat?

· Musherrik onenak Bartzelonan dira. Estatuko lau dendetan baino ez dira trineoak saltzen, eta laurak Bartzelonan ditugu.

· Gizon-emakumeak zenbat eta gehiago ezagutu, hainbat eta maiteago dut nire txakurra...

· Horrela da. Pertsonak huts egiten dizute noizbait, txakurrek inoiz ez.

· Demagun zure txakur bat naizela ni. Esadazu zerbait polita.

· Aurrera politak, aurrera! Hori esaten diet nire neskatoei, guztiak emeak baitira. Dena den, txakurrei ez zaie asko hitz egin behar, une erabakitzaileetan bakarrik.

Ismael Diaz de Mendibil

 **Edorta Sanz**



"Hilean nire txakurretariko bat zaintzeko 13.000 pezeta behar dira"



NONBAIT

Opariak: zeramika, zilarra, postalak...

Kamisetak: Barabú, Greenpeace, Kot, Perretxikoak basoan...

Euskal oihalak

Loma Jeneralaren plaza, 5 • 01005 GASTEIZ • Tlf. & faxa: 945 13 93 09
Mateo Moraza kalea, 7 beheka • 01005 GASTEIZ

DI - DA



IKER GUTIERREZ

· Nahi izanez gero, zuen instalazioetan eskalatu dezaket?

· Zu sartu? "El Templo"n ez da edozein lagun sartzen. Gainera, bertako rokodromoa gogor entrenatzeko prestaturik dugu, ez zenuke ezta segundu bat ere zintzilik iraujngo. Batetik, ez da ikasteko, eta bestetik, pribatua da.

· Gasteizen eskalatzaile ezagunak ditugu, esaterako, Madinabeitia edo Pou. Horien atzetik beste batzuk zatozte?

· Bai, besteak beste, Andoni Perez, Gaizka Sampedro, Joseba Sainz... Horiek gazteak eta onak dira. Joan den urtean Europako txapelketan hartu zuten parte, eta aurten ere bai.

· Lagun asko mendian hil dira. Harkaitzei gorroto izan diezu inoiz?

· Azken lagunak ez ziren mendian hil, menditik zetozela baizik. Nire lagun-taldekoak ziren, eta Cuenatik itzultzean, zorigaitzeko kotxe istripua izan zuten. Halere, nik ezin ditut harkaitzak gorrotatu.

· Gaur gauean parranda ederra egiten dugu, eta bihar ez goaz men-

Gasteizko Barrenkalean "El Templo" izeneko egoitza dugu tabernen eta etheen artean. Orain bi urte 14 lagunez osaturiko talde batek 40 metro karratuko aroztokia zena alokatu zuen. "El Templo" deitu arren, ez zuten eliza egiteko errentan hartu, ezta taberna berri bat irekitzeko ere. Tokia, kobazulo baten modukoa. Lagun gazteak, eskalariak. Rokodromo bat egitea, ametsa. Esan eta izan, rokodromoa egin, eta "El Templo" deitu zioten.

"ARIZNABARRAKO ESKALADA-MURRUAN 500 BAT LAGUN ARITZEN DIRA"

dira. Zer erantzuten didazu?

· Baldin eta eguraldia. Neguan parranda egitea nahiago dut, udan, berriz, ez. Alabaina, dena egin daiteke: gauez trago batzuk hartu, eta igandeko eguerdian mendira goaz.

· Zuetako askok Eginoko harkaitzetan ikasi duzue. Han urteak eta urteak eman ondoren, aspertzen al zara?

· Ez, ez duzu gogait egiten, baina lekuz aldatzea atsegin zaigu eskalatzaileoi. Munduko paretarik zailenak egin dituztenak, Madinabeitia kasu, Eginon aspertzen dira, noski.

· Nirekin Himalayara etortzea eskaintzen dizut. Nik ordaintzen dut dena, zuretzat lana, eta niretzat ospea. Bazatoz?

· Ezta pentsatu ere. Nik ez dut Himalaya gustuko, baizik harkaitzak eta paretak.

· Eskalatzen hasi nahi badut, zenbat diru eta zer behar dut?

· Hasteko, katu oin batzuk eta magnesioz beteriko zorroa. Guz-tira, 6000 pezeta inguru. Horiez gain, rokodromoa behar duzu ikasteko; Gasteizen publikoak diren bi ditugu, Hegoalde eta Ariznabarra Gizarte Etxetakoak, alegia. Sarrera 300 pezeta dira, baina hileko kuota ordaintzea hobe duzu, 1.275 baino ez baitira.

· Gasteiztarrok gogoko dugu

eskalada?

· Nik uste gasteiztarrei asko gustatzen zaiela mendia, edo hobe esanda, kirola. Ez dakit eskalada gogoko duten, baina, egia esan, hemen ditugun eskalatzaileak puntakoak dira. Halere, eskaladak gora egin du gurean. Izan ere, joan den udan Ariznabarrako Gizarte Etxeko rokodromoan egin nuen lan, eta 500 bat lagunek eskalatzen zuten bertan.

· Eskaladan badago ezer egiterik dirurik gabe?

· Zoritzarrez, dirua beharrezkoa da, zertan ez? Zenbat eta pareta zailagoak egin, orduan eta diru gehiago behar duzu. Dirurik baduzu, edonora joan zaitzake; eduki ezean, gu bezala, ondoko herrira joatearekin konformatu behar duzu...

· Eta Aste Santuan?

· Paris aldera goaz, ondoko herri batera hain zuzen. Esan digutenez, oso harkaitz politak daude han.

· Ba, Salou eta Benidormera milaka gasteiztar joango dira...

· Ez nintzateke inoiz joango; jendez gainezka, atzerriko turistak... Ez dago alderatzerik Parisekoa eta Salou.

Ismael Diaz de Mendibil

Edorta Sanz

ARANBIZKARRA

**ZURE
AUTOESKOLA!**

**Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz**

ELEKTRIZITATEA

GURIA

MUNTAIA ELEKTRIKOAK · AUTOMATISMOAK
GIROTZEKO MUSIKA ETA SEGURTASUNA

Matxaria, 2 - 7. pabilioia · Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoileko ertzean)
Tfnoa: 945 25 03 52

Txeroki



THE ALLNIGHTERS:

The Allnighters taldea Gasteizen jaio zen 1988. urtean, garai hartan musika jotzeaz asko ez zeki-telarik. Dena dela, hasierako gabezia hori gogo eta blues-aren zein rithm and blues-aren alde guztiak ezagutzeko jakingura handiz gainditu zuten. Hortik aurrera berrehun eta berrogeita hamar agerraldi inguru gauzatu, Blues Brothers, Wilko Johnson, Barrence Whitfield eta Ian Dury-rekin, besteak beste, eszenatokia partekatu, Bilbo Hiriko Pop-Rock Lehiaketan hirugarren pos-tua eskuratu, Getxoko Blues Jaialdian parte hartu, eta, jakina, single eta abesti bildumaren batean agertzeaz gain, hiru disko kaleratu dituz-te. Egun, hirugarrena oraindik ere bero dagoe-nean, The Allnighters-ekoek agur esaten digute. Ongi Ibil!

Ten Long Years ondoren,

agur!

Hamar urte luze errepidean eman eta gero, The Allnighters boskote gasteiztarrek joan den urtearen amaieran agur esan zigan, gure gogoan, eta baita gure diskotekan ere, lan, zuzeneko eta abesti ederrak utzi zizkigularik: "Midnight Boogie" lp-a 1994.ean, "Like A Devil (I Will Love You)" singlea 1995.ean, "Keep On Keepin' On" iraupen luzeko bikaina 1996.ean, eta, orain, kalera-tu berria dugun agurrezko "Ten Long Years" izeneko, Inñigoren ustez (tal-dearen gitarra, pianojolea, eta gure solaskidea) euren karreraren zehar gauzatu duten onena.

· Zergatik aukeratu zenituzten Bartzelona eta Madril agurrezko kontzertuak eskaintzeko?

· Beno, erantzun baino lehen esan behar da, Madril eta Bartzelonaz gain, baita Valentzia eta Euskadi ere, jakina, auke-ratu genituela. Bira txiki horretan El Bierzo eta Asturias sartzeko gogoia genuen, toki horietan beti harerra ona jaso dugu eta. Gainera harreman estuak izan ditugu leku horietako taldearen jarraitzaile asko-ekin. Dena jakin nahi

zuten gutaz, gure musikaz eta baita The Allnighters-en bilakae-rari buruz ere. Badirudi dena nahasten ari naizela, ezta? Galdetu didazu ea zergatik Madril eta Barna. Agurrezko biratxo hori gauzatzeko bost hiri aukeratu behar genituen, beste-rik ez, denbora eta data arazoak zirela eta. Hori horrela, zeuk aipatutakoei Gasteiz, Bilbo eta Valentzia gehitu genizkien.

**Disko hau
aurrekoak
baino
serioangoa da.**

· "Ten Long Years" grabatu aurretik The Allnighters-en azkenengo dis-koa izan behar zuela bazenekiten ere, gogo osoari eutsi al zenioten?

· Bai, jakina. Aldez aurretik tal-dearen azkenengo lana izan behar zuela jakiteak, gure gogoia urritu beharrean indarberritu gintuen, gure jarraitzaileei, eta baita gure buruari ere, oroigarri eder bat utzi nahi baikenien. Bestaldetik, disko honetan luxuz-ko laguntzaileak izan ditugu, motibazioa gero eta handiagoa izan delarik.

· Diskoaren azala eta aurkezpena ikusita, desagertu baino lehenago-ko garaiko The Allnighters, talde bat baino gehiago bost banakota-sun izan zaretela pentsa liteke.

· Beharbada bai, agian arrazoiak daukazu, baina egia esan ez dut luzaro horretaz pentsatu. Dena den, diskoaren azalarena ez da gure ideia izan, baizik eta Alelui Re-cords-en diseinugile ba-tek egindako lanaren emaitza. Aipatu diseinu-gileak ongi ezagutzen





"Ten Long Years" taldearen azkenengo lana izan behar zuela jakiteak, gure gogoa urritu beharrean, indarberritu gintuen.

ditu taldearen bilakaera eta diskografia osoa. Bestetik, disko hau aurrekoak baino serioagoa da, gure ustez. Taldekide guztion lanak garrantzi bera du, eta hori azaleko diseinuan islatzen da.

· Zuriegiak Rithm & Blues eta Soul-ean aritzeko?

· Ez dut uste arraza edo kolorearen arazoa denik, baizik jarrera eta partehartzearena. Sentitu eta sinetsi behar duzu egiten ari zaren hori. Berdin da musika tankera batekoa ala beste batekoa izatea. Saiatu behar dugu bizitzan zehar egiten dugun guztia sentitzen. Sentimenduen kontua da.

· Beranduegi orain hogeita hamar urte bere garairik gozoena bizi izan zuen musika tankera honetan aritzeko?

· Denborazkanpoko musika da. Kalitatezkoa bada eta ondo burututa badago ez da inoiz modatik kanpo geldituko. Dena

den, berrogeita hamar urtez geroztik berrikusketak egoten dira, eta gaur egun, mendea bukatzeaz dugunean, musika estilo guztiak eta arrazak eurak nahasten dituen garaia ari gara bizitzen, eta, jakina!, soul-a, jazz-a, blues-a eta funk-a eskola horren kideak dira.

· Badirudi single arrakastatsuren bat falta izan duzuela taldea ospetsuago bilakatzeko.

· 1991.eko uztaillean sei abesti zituen geuk ekoiztu maketa bat grabatu genuen Berrizko Lorentzo Records estudioetan, 2500 ale saldu genituelarik. Hori, orain zortzi urte gertatu zela, eta banaketako bideak guztiz etxekoak izan zirela kontuan hartuz, arrakasta osotzat har daiteke. Gu geu arduratu ginen maketaren sustapenez eta baita zuzenekoak lortzeaz ere. Lan horrek emaitza onak ekarri zituen, maketa horri esker lehendabiziko diskoa grabatu ahal izan genuen eta. Hori horrela, hiru urte beranduego "Midnight Boogie" (Oihuka) kaleratu genuen, eta 1995.ean, Marriot Records-en eskutik, "Like The Devil (I Will Love You)" singlea, Europaz gain San Francisco hiriraino heldu zena.

· Euskal Herritik kanpo zuzeneko asko egin duzue zuen karreraren zehar.

· Musika talde batentzat ezin-

bestekoa da kontzertu aretoekin, kontzertu sustatzaileekin, komunikabideekin, beste talde batzuekin, disketxeekin eta baita banaketako kanalekin ere harreman onak izatea. Hau ez da, beraz, zorteak sortzen duen zerbait, baizik gogor landu eta gero biltzen duzun uztia.

· Zein unetan gertatu da The Allnighters-en amaiera?

· Beharbada, musikagintzari dagokionez, taldearen unerik onenean. Nik uste horrek balio handiagoa ematen diola gure azkenengo lan honi.

· Zein izan da hamar urteotan zehar entzun duzuen hitz gozoena?

· Estatu osoko musika beltzaren talderik onena garena.

· Eta esaldirik desatseginena?

· Zorte ona izan dugula, iritzi emailak gurekin oso ongi portatu direlako beti...

· Eta hemendik aurrera, zer?

· Zenbait urte itxaron beharko dugu kultur talde bilakatu, gure disko zaharrak berrargitaratu, ospetsuak eta aberatsak izan, eta jubilazioa segurtatu arte. Beraz, badakizue!, eros itzazue ja gure diskoak, hemendik gutxira oso garestiak izango dira eta.

Musika estilo guztiak eta arrazak eurak nahasten dituen garaia ari gara bizitzen.

 **Txabi Arnal-Gil**
Edorta Sanz

SOINUAK DENBORAN ZEHA

STORBAIS, "La Unica Ley-Lege Bakarra"

Potencial Hard-Core, 1999.

Storbais talde ermutarraren lagunak Tipo aldizkariak antolatutako azkenengo maketa lehiaketaren irabazle berriak ditugu, jasotako saria aurkeztear dugun "La Unica Ley-Lege Bakarra" delarik. Dena dela, disko hau ermutarren lehenengoa bada ere, Storbais-ekoak ez dira musika mundura iritsi berriak. Ezaguna genuen aurreko maketa, eta entzunak, dastatuak eta gogokoak zuzenekoak. Eta zuzenekoak aipatu ditugunez, bide batez, eta diskoa aztertu baino lehen, mintza gaitezen Ermuko boskote honen agerraldiez. Hitz bat, besterik ez dugu behar bizkaitarren kontzertuak deskribatzeko: izugarriak, beharbada gaur egungo Euskal Herriko rock gogorraren arloan indartsuena. Zergatik? Alde batetik, Aitor "Txino" abeslaria, Evaristo "La Polla" rekin batera, azken urte hauetan izan dugun <<front-man>> ikusgarriena delako; eta bestetik, Barru-k, Txampras-ek, Rober-ek eta Fory-k "Txino"ren ikuskizuna gara dadin giro bikaina sortzen dutelako. Eta diskoa? Zer entzungo ote dugu "La Unica Ley-Lege Bakarra" osatzen duten berrogeita gehiago minutuetan zehar? <<Kaina>>, <<kaina>> eta <<kaina>>. Ez gara ausartzen Storbais taldearen musikari izenik ematen, baina ziur-ziur gaude belarri finek gozo onaren kontrako eraso bat dela esango dutela. Gozo ona? Norena?



"La Unica Ley-Lege Bakarra", "Naryha" abestiaren bitartez, leunki eta misteriosuki zabaltzen bada ere, bigarren kantatik aurrera gitarrek erdi ikusten utziko digute disko osoan barrena aurkituko duguna. Eta topatuko ditugunak gitarra zorrotzak eta pisudunak, ahots guturala, eta pitzadurik gabeko erritmoak izango dira. Horren lekuko ditugu "A. Boys" izeneko zapalgailua, "La guadaña", "Siempre" edota, gure ustez, gitarra tratamendu eta leloarengatik, diskoko minutu beroenak dituen "T.D.J" bikaina. Besterik? Bai. "Ke Os Den" gitarra ariketa txalogarria, eta hemen-dik aurrera merezi duten estimazioa lortzeko gogo. Aholkurik? Bai, Storbais zuzenean ikusteko aukera izanez gero, ez galdu!

Harremanetarako telefonoa:
943.17.43.20 (Aitor).

Txabi Arnal-Gil

SHARON SHANNON "EACH LITTLE THING"

3060 PTA.



Bere hirugarren diskoan, Donald Lunny eta beste hainbat musikaririk lagunduta, akordeoilari berriztatzaile honek zeltiar doinuak mundurat hedatzen ditu, Fleetwood Mac, Inti-illimani eta Kirsty Mac Cool-ek ingelesez kantatu Astor Piazzolaren "Libertango"ren bertsiok entzun daitezkeelarik.

OSKORRI AND THE PUB IBILTARIA III

ELKARLANEAN, 1999 - 2655 PTA.

Oskorri taldeak bere hirugarren pub ibiltari honetan aurreko bien hari bera darabil. Euskal kanta herrikoien bildumak hauen edertasuna agerira ateratzen du. Haika mutil, A, a, a. Ardo gorri nafarra... eta horrela 17 arte. Lan honen aurkezpena, beti bezala, galanta: abestien hitzak, itzulpena, pianorako partiturak...; dena koadernotxo batean bilduta. Kanta dezagun guztiok bada, kantatzen duen herriak bizirik dirau-eta.



E.B.Z.

arular
LIBURUDENDA-ren

ARABAKOAK

SEGISMUNDO TOXICOMANO.

Puente Alto-n jaio zen orain bi urte izen berezia duen boskote hau. Taldekide guztiak esperientziadunak direla kontuan hartuz, ez da harritzekoa joan den urtearen hasieran lehendabiziko CDa grabatu izana. Hori dela eta, eza-gunak ditugu jadanik Segismundoren hamabi abesti. Zein musika tankeratan aritzen diren? Punk-rock-ean, hain zuzen.

Harremanetarako telefonoa:
945.23.28.41 (Gabi).

TEENAGE LOBOTOMY.

Juanito Ramone gitarra lanetan, Joselito Ramone ahotsean, Tomasín Ramone baterian eta Imanol Ramone baxuan. Eraginik nabarmenena? Musika tankera? Euren gustuak? Bertsiorik Teenage Lobotomy-ren kanta sortan? Ahalegindu zuk zeuk erantzuten. Zer? Ez zenekiela The Ramones Gasteizen berpiztu zaizkigula?

Harremanetarako telefonoa:
945.25.24.40. (Iñaki)

SIN FAVOR.

Zazpi urte igaro dira gure hiriko Sin Favor laukotea osatu zenetik, eta, ez pentsa!, oraindik ere ez dira nekatu, ezta aspertu ere, gitarra erritmoei eta melodiaz beteriko leloei ekiteaz. Euren sekretua? Etengabeko lana eta entseiu luzeak. Emaiza? Zuzeneko ugari, maketa bat, eta partekaturiko bi disko.

Kontaktua.
945.14.43.89. (Joseto)

Txabi Arnal-Gil

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13
☎ 945 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA
URDAITEGIA

Paraguay kalea 17
☎ 945 27 07 90
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 eta 3
☎ 945 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 eta 3
☎ 945 26 78 97



JOSEBA
HARATEGIA

Paraguay merkatua
10 El Pilar auzoa
☎ 945 25 66 89
GASTEIZ



*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*



adaka
madinabeitia

**Floridako
altxorra !**

35



Txabi Arnal Gil

Lanean zein etxean, berdin da

Gaur arratsaldean, lana bukatu eta gero, ez dut ohi bezala etxerako bidea hartu. Pentsatzeko bakardade pixka bat behar nuen, hemendik aurrera zer egingo ote dudan erabakitzeko. Bi hiruhileko eman ditut jadanik haurtzaindegiko irakasle eta, egia esan, denak aurreneko egunean bezala jarraitzen du; ez da ezer aldatu. Barkatu, ez dut gezurrik esan nahi. Aitortu behar dut zerbait aldatu dela: nire jatorrizko kemena desagertzen ari zait. Interruptorea sakatzen ari dena ni ez naizen arren, haurrekin egoteko gogoia egun batetik bestera amatatzen zait. Amak abisatu zidan lana eskaini zidaten uda amaierako egun hartan: *"Topatu duzun lan hori ez da batere egokia gizonetzkoentzat. Utzi emakumeok arazo horietaz arduratzen, eta ez kezkatu, behar proposagoa aurkituko duzu eta"*. Amaren hitzaldi zuzena entzun ondoren, Dylan-en abesti zaharraren hitzak aipatuz, hauxe erantzun nion: *"Baina, zer diozu, amatxo? Oraindik ez zara konturatu sasoiak eta ohiturak aldatzen ari direla? Gaur egun ez dago emakumezkoen lanik, ezta gizonetzkoenik ere. Denok, nahi izanez gero, edozein eginbehar betetzeko gauza gara"*. Aitak ez zuen parte hartu elkarriketa hartan, aitak uste baitu denok, nola edo hala, heldu egin behar dugula. Baita neskekin inoiz ikusi ez duen bere semea naizen honek ere.

Gaur arratsaldean, lanaren ondoren, noraezean paseatzeari ekin diot. Udaberriko eguzki izpiek oraindik ez dute ia berotzen, hala ere, burua kezkaiz beterik nuenez, ez diot hotzari inolako jaramonik egin. Burura etorri zait haurtzaindegira ailegatu nintzen iraileko lehen egun hura. Zuzendariak berak ireki zidan atea eta, agurtu beharrean, hauxe esan zidan: *"Bazen garaia, txo! Komuneko iturriak gaizki dabilta ekainetik. Uda osoan itokinak izan ditugu. Ez dut pentsatu nahi zenbat ur galdu den alferrik. Ez, ez dut uste zure errua denik. Badakit sailburuak banatzen dizuela lana, eta zuek berak agindutakoa bete behar duzuela, baina, mesedez, azal iezaiozu nagusiari premiazko hitzak zera adierazten duela: berehala konpondu behar dela. Eta orain zatoz nirekin, komuna erakutsiko dizut eta"*. Sano lotsatu zitzaidan zuzendaria ni ez nintzela iturgina argitu nioanean. *"Barkatu, gizona! Izan ere, zu zara..."*. *"Bai"*, erantzun nion nik, *"hezitzaile berria nauzu"*. Gainontzeko hezitzaileak oporraldiari buruz ari ziren hizketan bilera gelan sartu nintzenean, eta tupustean utzi zioten berba egiteari zuzendariak nor nintzen jakinarazi zien bezain azkar. Ni ez naiz mutil ederra, ez pentsa! Sekula ez naiz inongo emakumeren gustukoa izan, baina goiz hartan nire ager-

pen hutsak mutu utzi zituen adin ezberdinetako hamar andre haiek.

"Ai ene! Lehendabiziko egun hartatik hona bi hiruhilabeteko igaro badira ere, ez da ezer aldatu". Hauxe izan da gaur arratsaldeko ibilaldi osoan zehar nire buruak erabili duen esaldi bakarra. Hasieran hasiera zelako, eta hasiera guztiak gogorak gertatzen direlako. Umeak urrian egokitze garaian murgilduta zeudelako. Abenduan, Gabonek denok urduri jartzen gaituztelako. Urtarrilean, oporren ostean, haurrek hainbat egun behar izaten dutelako berregokitzeko. Eta gaur egun, zergatik? Zergatik ez da ezer aldatzen? Zergatik esaten dit inguratzen nauden guztiak jokoz kanpo nagoela?

Oraino gogoan daukat nire gurasoei lehenengo nomina erakutsi nien arratsalde hura. Ez ditut sekula aitaren hitzak ahaztuko: *"Nola? Umeak zaintzen lantegian baino diru gehiago jaso daitekeela?"* Ezta amarenak ere: *"Arranopola! Zu eta zure anai-arrebak zaintzearen ez zidan inork ezer pagatu!"*. Eta lagunak? Lagunek esan zidatena aipatzen ez badut, hainbat hobeto!

Bi hiruhilabeteko pasa dira jadanik haur eskolan nagoenetik eta, egia esan, umeek inguratuta pozik egoten naiz; pozik lankideak edota umeen familia-koak agertzen diren arte. Sei hilabete, urtearen erdia igaro da, eta bai lehenengoak, baita bigarrenak ere, ez dira nitaz fidatzen. Zergatik?

Atzo Mirentxu, nire gelako ume txikiena, ez zen ohi bezain bihurri eta jostalari ibili. Irteterakoan haren amari jakinarazi, eta medikuarengana eramatea gomendatu nion, entzuna baineukan birus bat zabaldurik zegoela auzoan. *"Bai, bai"*, erantzun zidan Mirentxuren amak, eta jarraian nire lankide bati galdetu zion ea egia zen auzoan birus bat zegoela. Gaur goizean Mirentxu amaren eskuari helduta iritsi da eskolara. Sarreran geldirik, amak alde bate-tik bestera begiratzen zuen, eta nik, zerbait bilatzen zuelakoan, laguntzarik behar al zuen galdetu diot. *"Ez, mila esker"*, erantzun dit. *"Zure lankideren bat ari naiz bilatzen. Atzo alaba medikuarengana eraman nuen, eta kaka nola egiten duenikusi behar dudala esan zidan. Baina, jakina, eskolan eginez gero, nik ezin izango dut jakin nola..."* Esan behar diot andereño bati adi egoteko. *Abisua emango al diozu norbait, mesedez?"*. *"Bai, emango ez diot ba!"*, erantzun diot oso haserre. *"Nire lankideren bat arduratuko da honetaz. Usaimena minduta dudanez, ni ez naiz kakak eta pastelak ezberdintze-*

ko gai izango eta". Egurdian, Hezkuntza Saileko Buruak hots egin dit nire tutoretzako haur baten amaren kexa hartu duelako. Era ironikoan eta giza-biderik gabe jokatu omen dut.

"Ez zaitez haserre", esan dit nire lankide batek ni lasaitu nahian. "Ongi dakizu nolakoak diren gurasoak. Ez daude ohituta gizonezko bat umeak zaintzen ikusten. Bai, bai, badakit orain zertaz mintzatuko zaren; koedukazioaz edota hezkidetzaz, baina zuk ere saiatu behar duzu ulertzen jendearen mentalitatea ez dela behingoan aldatzen, eta ogibidea ez dela unibertsitatean ikasten, baizik eta lanean, egunetan zehar". "Egun gutxi batzuk balira behintzat", nik marmarka. "Sei hilabete daramatzat haur eskolan, eta nire arazo honi bi konponbide baino ez dizkiot ikusten: lanari uztea ala gurasoen eta zuen guztion pentsamoldea aldatzea". "Gainera", jarraitu du lankideak ni neure hausnarketatik aterata, "badakizu lankideok prest gaituzula laguntzeko, eta oso pozik gaudela zurekin". "Pozik nirekin? Esan gabe doa pozik egon behar duzuela nirekin!", murgildu naiz berriro ere nire gogoetan. "Eskolara heldu naizenetik ez diozue inori ezer azaldu behar izan, guraso guztiek uste baitute gaizki egindako gauza denak nik zertutakoak direla. Gizonezkoa da gizajoa!, nola egin ote dezake ongi gizon batek emakumezkoen lana? Hau atxakia!". Hori horrela, ez da harritzekoa eskolan amak bakarrik ikustea, seme-alabak hezitzeko eta zaintzeko eginbeharra euren dela erabat onartu dute eta. "Zorterik onena izango du zure andragaiak", esan dit gaur ama batek. "Ipurtzapiak aldatzen dakien, eta gure beharretan laguntzen digun gizon bat topatzea ez da gauza erraza". "Bai, bat nator zurekin; zorte ona izango du hau bezalako txori bat harrapatzen duenak", baieztatu dio andereño batek. Loreak jaso eta gero komunera joan behar izan dut, goitinahiak etorri zaizkit eta.

"Gaur ez dut bazkalduko", esan diot amari egurdian. "Larri nabil". Ez nenbilen gezurretan, goizean bizitutako egoera guztiek gaixotuta ninduten. Ohean etzan naiz eta musika bolumenik gorenean jarri dut. Ez nuen ezer egin nahi, ezta pentsatu ere. Diskoaren azkenengo kanta entzun eta gero, loak hartu nau. Eskerrak ama gelara etorri zaidan hirurak hamar gutxi zirela esatera. Zapatak jantzi, eta arineketan jo dut eskolarako bidetik. "Deitu zuzendariari eta esan ez zaudela sasoi onean. Andereño bat bidaliko dute zu ordezkatzeko", oihu egin dit amak eskaileretatik behera nin-doala. Ez diot erantzun nahi izan.

Izerditan blai baina garaiz heldu naiz eskolara. Mantenimendu Zerbitzuko langileak nire ikasgelako pertsianak atontzen aurkitu ditut. "E, aizu", esan dit batek. "Ikusten? Atzo deitu zenigun pertsianak ongi ez zebiltzala esanaz, eta gaur bertan

gaituzu arazoa konpontzen. Korporatibismoa deitzen diot nik honi. Gizonezkook elkarri lagndu behar diogu, ezta? Zure lankideren batek deitu izan baligu... auskalo noiz agertuko ginen! Baina zu, zu beti salbuespen bat izango zara, bai, baita-kigu emakumez inguraturik zoro ibili behar duzula. Portzierto, txotxoka egin ahal duzu guztiekin? Gazteenak ez dira batere itsusiak". "Bete zure lana eta utz nazazu nirea pakean egiten", esan diot, eta jarraian umeak bildu ditut patiora joateko asmoz. Klaseko atea zeharkatzen nengoela ongi ulertu ahal izan dut Mantenimendu Zerbitzuko lagun guztiek batera gaitzesan dutena: "Maritxu hori! Bete zure lana eta utz nazazu nirea pakean egiten! Eta zein izango da andragixon horren beharra? Umeei kaka kentzea? Ezpainak margotzea? Kuki izeneko bere txakurtxo hori paseatzera ateratzea, agian?". Mantenimendukoen barre algarak atzean, patiora irten naiz umeekin, eta patioak babestuta eman dut arratsalde osoa.

Bostak eta hamarrean haur guztiak etxera joanak nituen. Eskerrak gaur gurasoak oso puntual etorri diren. Ito egiten ari nintzen eskola barruan. Arnasa hartu behar nuen. Inor agurtu gabe, korrika kaleratu naiz.

Poliki-poliki eskola nire begietatik desagertuz zihoan bitartean, pausoen arintasuna moteldu dut. Ez nekien nora joan, nondik pasatu, ezta non gelditu ere. Itsuturik nenbilen. Saiatu naiz ideiak ordenatzen eta erabakiren bat hartzen. Alferrik! Lankideek, haurren gurasoek, amak eta aitak, eta Mantenimendukoek, denek batera, ez didate utzi. Ilunabarrean, gose eta oinak minduta, ez ordea buruestima bezain minduta, etxeratu egin naiz. Amari ez diot ezer azaldu behar izan. Nire aurpegia ikustea nahikoa izan du zerbait ongi ez dabilkidala jakiteko. Laztandu egin nau, eta maitekiro esan dit: "Ez zaitez kezkatu, ume. Nahiz eta eskolan emakumezkoen lanak egin behar dituzun, nire gizontxoak izango zaitut betiko. Etxean ez duzu inoiz halako sinplekerietan aritu beharko, ni neu eta zure arreba gaituzu eta. Orain afaldu, eta ondoren zoaz ohera, atsedean hartu beharrean zaude". Batek daki zergatik, baina amak esandakoak gosea kendu dit, ez aldiz oheratzeko gogoak. "Baina, ume!", oihukatu du amak, "ez baduzu jaten gaixotu egingo zara, eta medikuarengana joan beharko duzu". "Medikuarengana? Ja!", gehitu du aitak. "Psikiatrarengana bidaliko nuke nik, ea bere onera ekartzen digun gure sasigizon hau!".

Argia piztu barik eta arropa erantzi gabe oheratu naiz, eta negar biziari ekin diot. Ondoko ohean anaia nuen, eta honako hau esan dit: "Aizu, ez negarrik egin! Andrazkoa ematen duzu eta!".

*(Sexismoaz gaindiko ipuinen hirugarren lehiaketa, 1. saria)

Aramaioko Harana

Bizkaia eta Gipuzkoa probintziak alkartuten diran gune txiki eta berezia Aramaio Harana dogu. Haran honi buruz, beste bi probintziek mugatutako arabar txoko bat dogula, ezelango zalantza barik esan leiteke.

Arabatik helduteko asmoa badaukagu, Legutianotik urteten dauan Arrasaterako bidea hartu beharko da, baina, alderantziz, Gipuzkoatik bagatoz, Deba Garai-ko herri beratik edo Aretxabaletatik Untzilla auzora doan aldatx gogorarik bere joan geinke.

Baina, zergaitik Aramaio Haranaz idazlan honi ekin? Galdera txiki eta erraz honi erantzun on bat emotekotan bagara, eta ezagutzen dogunotarikoak bagara, lana galdera baizen erraza dogu baina, ez badogu leku hau sekulan ikusi, egin beharrekoa bertora hurbildu, oraintxe hemen azalduko dana ahalik eta arinen egiaztatu ahal izateko izango litzake. Erantzuna bera, neure eta Juan Astola, Legutianoko artzai baten ustez, Aramaio Araban dagoan leku politenatariko bat dalako.

buruz adibide bat ipinteko, gaur egungo gaztediak hurbil dagoan Arrasaten edo Gasteizen lan postu bat euki arren, zaharrek eguneroko bizitza baserrietan egiten daue, aipatu diran ohitura horiexek gordez, urren-
go belaunaldiei osoki itziz. Honegaz esan gura izan dana, Aramaion ogibidea nabarmen aldatu dala baina sustraia barik, izango litzake.

Bizi aldaketa honek haranari bizi kalitatean beste aldaketa barri bat ekarri dautsola esan behar baina haranaren nortasuna galdu barik, ez da holan gertatu Euskal Herriko beste leku askotan, leku zabalagoetan batez bere, kanpoko influentziek eta garaien aurrera joateak min haundiak egin dautsiezalarik, kultur eta nortasun aldetik hain garrantitsuak izan diran herri askoei.

Horrexegaitik, orain arte esandakoak, hego Euskal Herriko iparraldeko herrien ohiturei eta bizimoduei begirada bat emoteko aukera emoten dausku.

Baina Aramaio Harana, iraganeko hego Euskal

Herri iparralde osorako oñarri modu legez ez dogu bakarrik erabiliko, herri berak bere esaerak, kultur ekintzak, gertakizunak, kondairak, hau da, mendetan zehar Haraneko historiarako garrantsi haundikoak izan diran zer egin asko badaukalako. Honen adibide batzuk, Oñacinos eta Gamboinos-en arteko guda izugarri gogorrak, Sta. Cruz apaizaren ekintza ospetsuak, Anbotoko Damaren agerraldiak, XIX mende arte Haraneko bizitzan hain garrantitsuak ziran burnigintza, zurgintza eta errotak,

baserri bakotzako bistanleak eta azkenik bai Araban, Euskal Herrian zelan atzerrian ezagunak ziranetariko pertsona batzuk, Gabriel Jauregi (Etxaguengo Uribarren Goikoa Baserrikoa) euskaraz idazlari arabarra, Tomas Axpe Buenos Aires-eko Cochabambako Apaizburua (Azkoagako Labiena Baserrikoa), Martin de Alzaga Buenos Aires-eko askatzailea, gaur egungo Aramaio apaiza dan J.M. Elejalde Plazaola kondalari eta bertoko gorabeherak hobe ezagutzen dauazana ahaztu barik.

Amaituteko Ricardo Becerro de Bengoa, beste idazle arabar batek, Aramaio Haranari buruz behin idatzi ebana azaldu gura neunke : "Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia bateatzen ditun aran sakonak eskaintzen digun arrigarritzko ikus-begia, benetan zoragarria da".

Aramaio Udalerrria, Ibarra herri nagusiaz gain, beste zortzi elizaurrez osatuta dago, honako hauek diralarik: Gantzaga, Etxaguen, Arexola, Uribarri, Azkoaga, Barajuen, Untzilla eta Alzaga. Hauetariko batzuek, eleiz ondoko etxe multzoetatik metro gitxitara beste auzoen bat edo euki izaten daue, adibidez, Ibarrrak Arraga, Arexolak Arriola, Uribarrik Zubieta eta Guraia, Azkoagak Zabola, eta azkenik, Untzillak Suña.

Arabar haran honi, alde batetik Arangio eta Tellamendiko mendilerroek, eta bestetik Durakogain eta Murugain gaillurez inguratuta egoteak, hainbat eta hainbat urtetan zehar hego Euskal Herriko ohitura asko gorde ahal izateko aukera emon dautsoela aipatu leiteke. Dana dala, Aramaio lurrak gaur egungo garaian atzetik datorrenik ez dau honek esan gura, baina bai orde, berton ikusi leitekena aintzina eta gaur egungo garaian nahasketa antzeko egoera bat dala. Honi

GASTEIZ

DIBUtec

Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- FotoKopiak
- kolorez eta Zuri-Beltzean

Arte ederretarako...

behar duzun guztia

PAPERTEGI TEKNIKA

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2

TFN. 143883

GASTEIZ

HONAKO BULEGO HAUETAN BADAGO EUSKARAZ HARTUKO ZAITUEN LANGILERIK

BULEGOAK	ZERBITZUA	Helbidea	Tfnoa.
Udaletxea	Udal informazioa	Espainia plaza, 1	010
	Argibideak eta Erregistroa	Espainia plaza, 1	16 11 88
	Errolda	Espainia plaza, 1	16 11 06
	Funtzio Publikoa	Espainia plaza, 1	16 11 41
	Gazteen Argibide Bulegoa	Espainia plaza, 1	16 13 30
	Idazkaritza	Espainia plaza, 1	16 13 20
	Prentsa Bulegoa	Espainia plaza, 1	16 13 37
	Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1	16 13 08
Udala (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa	Dato kalea, 11	16 16 68
	Zergen Gestioa	Dato kalea, 11	16 11 33
Udala (S. Prudentzio kalea)	Gizartegintza	S. Prudentzio kalea, 30	16 13 44
	Arkitektura	S. Prudentzio kalea, 30	16 13 01
	Ingurugiroa	S. Prudentzio kalea, 30	16 11 20
Udala (Etxanobetarren etxea)	Emakumeentzako Zerbitzua	Sta. Maria kalea, 11	16 13 25
	Euskara Zerbitzua	Sta. Maria kalea, 11	16 15 22
Udal artxiboa	Argibideak	Unibertsitateko ibilbidea, 1	16 14 99
Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia	Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 87
Kultura	Argibideak	Goiuri jauregia (Villa Suso)	16 12 70
Hezkuntza	Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
Ekonomi Sustapena		Frai Zacarias kalea	16 12 11
Gizarte Etxeak	Ariznabarra	Ariznabarra kalea, 19	13 36 91
	Hegoalde	Alberto Shommer kalea, z/g	16 18 80
	Iparralde	Zuberoa plaza, z/g	16 17 50
	Judimendi	Sefarad plaza, z/g	16 17 40
	Lakua	Etxanobetarren zidorra, z/g	17 17 81
	Landatxo	Sta. María kalea, 4	16 16 82
Europa gizarte-etxea	Argibideak	Gasteiz hiribidea, 85	16 12 31
	Biltzar eta Turismo Bulegoa	Gasteiz hiribidea, 85	16 12 61
	Kontzientzia Eragozpena	Gasteiz hiribidea, 85	16 36 91
	Kirola	Gasteiz hiribidea, 85	16 15 61
	Europar Mugimenduaren E.K.	Gasteiz hiribidea, 85	16 15 57
Udaltzaingoa	Administrazioa	Agirrelanda, 8	16 14 58
	Antolakuntza	Agirrelanda, 8	16 16 60

CASA DE CULTURA

Organización
Fuerza del Pueblo

KULTURA ETXEA

KULTURA

CASA DE
ETXEA

apirilak 14, astezkena

Enkarni Genua: Ipuin Kontaketa

Enkarni Genua. * arratsaldeko 18:00etan

apirilak 19, astelehena

Enkarni Genua: "GALTZAGORRIAK"

Txontxongilo emanaldia

arratsaldeko 18:00etan

apirilak 27, asteartea

Prudentzio Deuna eta Estibalizko Ama

BERTSO SARIKETA

arratsaldeko 19:00etan

Hitza Kultur Etxean

malatzak 6, osteguna

Michel Ducau eta Caroline Philips:

Musika emanaldia

arratsaldeko 20:00etan

Florida pasealekua, 9

telefonoa: 945 18 19 44 • faxa: 945 18 19 45

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa